

Izeta II.a eta
Gabirondo eta
Esnaola izan
dira irabazle ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-07-05 ▶ III. urtea ▶ 651. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Bukatu dira San Pedro jaiak eskualdean, datorren urtera arte

AZKENA ▶ Herenegun izan zuten azken eguna Areson, Larraitzen, Leaburun eta Urkizun

ASTEASU ▶ Bertan behera utzi zituzten festak igande goizaldean neska bat istripuz hil zelako ▶ 2-3

IBARRA ▶



JAIONE ASTIBIA

Antolaketa oso gustura motozaleen festarekin

Jende asko bildu zen larunbatean eta igandean ▶ 3

VILLABONA ▶

Urdanpilleta etxea okupatu dute

Udalaren jarrera salatu dute Onddo asanbladakoek ▶ 4-5

LEITZALDEA ▶

Bai Euskarari agiriak, banatuta

Erakuskea eskatzen du Kontseiluak ▶ 7



Arantzazu Azpiroz, onena Euskadiko Txapelketan

VILLABONA-AIZTONGO ▶ Arantzazu Azpiroz berastegiarrak irabazi zuen igandean Emakumezkoen Euskadiko Txirindulari Txapelketa elite mailan Leire Olaberria ikaztegieta-raren aurretik. Sub 23 mailan Mireia Epelde, jubeniletan Jone Aretxabala eta kadeteetan Ane Santesteban izan ziren beste ira-

bazleak. Aldapetan ihes egiten saiatu zen berastegiarrak, baina ez zuen lortu. Azkenean esprinean irabazi zuen txapelketa. Larunbatean jokatu zen kronoeskaladan ere Azpiroz izan zen irabazlea. Argazkian, lau mailtako irabazleak —erdikoa da Azpiroz—. HITZA ▶ 6

GAZTELU ▶

Udal taberna
itxiko dute
irailera arte

Gazteluko Udalak jakinarazi du udal taberna uztailaren hasi eta irailera bitarte itxi egingo dutela, bertan egingo dituzten berrikuntza lanak direla eta.

ANOETA ▶

Gaztetxeko
uztaileko
ekitaldien hasiera

Hilabete honetarako Anoeta-ko Gazte Asanbladak antolatu dituen ekitaldiei hasiera emango zaie gaur. Ibon Artolak hitzaldia eskainiko du Venezuelako egoerari buruz. Hitzordua 19:00etan izango da Gaztetxean bertan. Bestalde, uztaileko abuztuaren zehar burutuko den frontenis txapelketa antolatu du Gazte Asanbladak. Txapelketa asteartetan jokatu da eta bikote bakoitzak 6 euro ordaindu beharko ditu. Itzuli tabernan eman behar da izena.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrerandi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

SAN PEDRO JAIK ▶

Datorren urtera arte
agurtu dira jaiak

Herenegun izan zuten festen azken eguna Urkizun, Areson, Larraitzen eta Leaburun; Asteasun bertan behera utzi dituzte



Meza nagusiaren ostean dantza emanaldia eskaini zuten herriko plazan. HITZA

Izeta II.a txapeldun Harri Txikietan

I. Terradillos ▶ Leaburun, San Pedro jaien baitan jokatu zuten igandean Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketako finala. Ez zen ustekaberik izan eta *Izeta II.a* aiarrak, hau da faborito nagusiak jantzi zuen txapela.

Bost harri-jasotzaile aritu ziren finalean, eta sailkapena horrela geratu zen: lehena, Jose Ramon Iruretagoiena *Izeta II.a*; bigarren, Joseba Ostolaza; hirugarren, Jesus M. Iruretagoiena *Izeta III.a*; laugarren Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.a* eta bosgarren Jokin Eizmendi. 125 kiloko zilindroarekin, 112,5eko kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin izan ziren probak eta *Izeta II.a* guztietan nagusitu zen. 9.537,5 kilo jaso zituen denera, Ostolazari 700 kiloko alde ateraz.

Jende ugari gerturatu zen Leaburuko Ttontorpe frontoira igandean, eta giro ederra izan zen. Ikuskizun falta ez zen



Igandean Leaburun parte hartu zuten kirolariak. HITZA

izan, Harri Txikien Txapelketa ezezik, Gipuzkoako Trontza Txapelketa ere izan baitzen ikusgai. Kasu honetan, Aitor Esnaolak eta Joxe Gabirondok osaturiko bikoteak irabazi zuen txapelketa. 9 minutu eta 40 segundo behar izan zituzten 54 ontzako enborrei 18

mozketa egiteko. Bigarren Eugenio Orbegozo eta Iñaki Orbegozo geratu ziren 10 minutu eta 27 segundoko denborarekin, eta hirugarren postuan, Andoni Rezabalek eta Aitor Rotetak osaturiko bikotea sailkatu zen 12 minutu eta 41 segundorekin. ◀

IÑIGO TERRADILLOS
NOELIA LATABURU

Hilabete berriaren hasierak San Pedro jaien amaiera iragarri du Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan. Horrela, Larraitzen, Areson, Urkizun eta Leaburun ekitaldiz beteriko igandea izan zuten, festei amaiera borobila emateko helburuz. Asteasun, aldiz, ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituzten, jazotako istripua zela eta. Amaro zuzenak, halaber, bere jaien azken eguna izan zuten herenegun. Goizean goiz iratzarri zituen dianak amaroztarrak. Mezaren ostean, berriz, Beti Gazteak elkartean eskulan erakusketa antolatu zuten. Eguerdian toberak izan ziren, auzo bazkariari paso emanez. Arratsalde partean dantzarien aurreko emanaldiak alaitu zuten giroa. Jaiak amaitzeko afari-merienda egin zuten.

Aresotarrek ere izan zuten zer gozatu goiz eta arratsalde. Mezaren ostean, eskera irten ziren herriitik; ostean herri bazkari legea egin zutelarik. Arratsaldean trikitilarien doinuek alaitu zuten plazako giroa. Dianarekin ere esnatu ziren Urkizuko biztanleak, mezarako prestatzen joateko. Arratsaldetan, berriz, bolo txapelketa egin zuten, gaztetxoek ume jolasetan aritzen ziren artean. Egun guztian zehar trikitilariak alaitu zuten jaiak. Jende asko bildu zen Larraitzen, eguraldi onak bultzatuta, San Pedroko jaiak ziren honetan. Meza nagusiaren ostean, trikitilariak izan ziren egun guztian zehar, zelaiean nahiz tabernetan zeudenak girotzeko.

Leaburutarrek ere azken eguna izan zuten herenegun. Kirola izan zen nagusi honetan, ohiko meza eta dantzarien saioaren ostean. Izan ere 12:00etatik aurrera pilotaleku berrituan pilota norgehiagokak antolatu zituzten herriko gaztetxoek artean. Arratsaldetan Gipuzkoako Harri Txikien Harrijasotze eta Trontza Txapelketak jokatu ziren. Eta eguna bukatzeko dantzaldia izan zen, trikitilarien esku.

Honen bestez datorren urtera arte agurtu dira gurean San Pedro jaiak. Kirola, musika, bazkari eta afariak... hamaika ekitaldi izan da denon gozamenarako. Orain datorrenak noiz ailegatuko zain geratzea baino ez dago..

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.



ESKERTZA ▶

KLARA MAIZ IRAOLA andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Abaitzoketa, 2005eko uztailaren 5a



ESKERTZA ▶

MARIA PILAR MUJICA MUJICA andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Alegia, 2005eko uztailaren 5a



ESKERTZA ▶

JOXEFA AMIANO LULLUAGA andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Alegia, 2005eko uztailaren 5a

Ezbeharrak Asteasun

N. Lataburu ▶ Larunbat gauean Asteasuko 15 urteko neska bat hil zen, auto istripu batean. Aiako festetatik bueltan zertorrela 17 urteko ahizparekin eta 18 urteko beste bi lagunekin. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak jakinarazi duenez, autoa galtzadatik irten eta lubeta batetik jauzi zen. GI-3710 errepidean, Aiako San Pedro auzoan; baina oraindik gertaera argitzeko lanetan ari da Ertzantza.

Autoan zetorren gazteetarikoa bat izan zen, hain zuzen, larrialdi zerbitzuetara deitu zuena. Hauek minutu gutxiaren bueltan iritsi ziren ezbeharrak gertatu zen lekura, baina ez zuten ezer egiterik izan Ane G. asteasuarrak bizirik mantentzeko, gazteak zituen zauriak oso larriak baitziren. Beste

hiru neskek Donostiako ospitalera eraman zituzten, zauri arinekin eta artatu ondoren, ordu batzuk geroago jaso zuten alta.

Gertaera jazo bezain laister (gaueko 00:45ak aldera), Asteasun egunotan ospatzen ari ziren San Pedro jaien barnean antolaturik zeuden ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituzten, gau hortakoak bertan zein igandekoak. Halaber, Udaletxeko ikurriñak krepe batez estali zuten, doluaren seinale.

Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak herrian giro tristea dagoela azaldu du. «Autoan zihozten lau neskek herritarrrak dira eta denok ezagutzen ditugu, horregatik lur jota gaude denak», adierazi zuen alkateak. ◀

IBARRA ▶ MOTORRA



Moto ikusgarriak ikusteaz gain, hauek eginiko era guztietako akrobaziez gozatzeko aukera izan da. HITZA

Motozaleen topaleku

Jende ugari izan da larunbata eta igandean III. Langostino Moto Festan; antolatzaileak oso gustura azaldu dira lortutakoarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Motozaleak, motorren burrunba, horiekin eginiko ikuskizunak... izan dira asteburu honetan Ibarra Langostino Moto Kultur Elkarteak antolaturiko III. Langostino Moto Festan.

Larunbat arratsaldean hasi zen festa eta igandea bitarte izan da zer ikusi eta zertaz gozatu. Zezen mekanikoa, motorrean eginiko jolasak eta eraldaturiko motorren erakusketa izan ziren arratsaldean zehar herenegun. Gauean, rock musika izan zen entzungai plazan hiru talderen eskutik, eta taretan *show* erotikoa. Igandean, 100 kilometro inguruko bira egin zuten motozaleek eta ondoren bazkarian bildu ziren 210 parte-hartzaileak. Gosaldu, bazkaldu, afaldu eta lo egiteko leku izan dute bi egunetan Uzturpe ikastola. Eta bertan egin zituzten bazkaldu ostean sari banaketak. Batetik, moto gainean eginiko jokoetan ho-



Uzturpe ikastolan izan dute akanpatzeko lekua motozaleek. HITZA

bekien egin zituztenak saritu zituzten, lehen hirurei txapel bana emanaz, eta bestetik, *show bike* edo eraldaturiko motorren erakusketan epailek — Langostino Moto Kultur Elkarteak kideek osatua — aukeraturiko hiru onenek, hau da, moto landuenak, dotoreenak edo ikusgarrienak, eman zuten saria. Azkenik *The best*

of saria izan zen festa osoko moto onenarentzat; Bartzelonako *Chusek* jaso zituen sail honi zegokion plaka eta txapelak.

Orohar, antolatzaileak oso gustura azaldu dira aurtengo Moto Festarekin. Jende asko elkartu dela azaldu dute, eta eskerrak eman nahi izan dizkie lagundu duten guztiei.



Larritzen trikitixa doinuek alaitu zuten arratsaldea. NOELIA LATABURU

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berean

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lur saila, garajea eta trastelekua. Etxesagasti 943 69 68 56.
Lizartza. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bi bainugela dituen etxebizitza. Berritua. Kanpoaldera. 34m²ko garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Etxebizitza eraiki berria. Bi logela, terrazekin. Txokoa, garajea eta trastelekua.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. Erdialdean. Bi logela eta trastelekua dituen etxebizitza. Berritzeko. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. Taberna salgai. Informa zaitetz. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Eraikuntza berria. 113 m²-ko etxebizitza paregabekoa.

Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Hiru logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Igogailua eta trastelekua. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Ibarren zerrenda dugu.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

«Proiektuak egia bihurtzeko»

Onddo gazte asanbladako kideek Urdanpilleta etxea okupatu dute berriki: «Beharrezkotzat jo dugu Gazte txarearen biziraupena ziurtatuko duen bidea guk geuk garatzea»; Udalaren jarrera salatu dute

IRATXE ETXEBESTE

«Jada hilabete igaro da Gazte txarearen urteurrena ospatu geroztik; gazteek, guñe aske baten urteurrena ospatu geroztik, alegia. Maitasunik hona, argi erakutsi dugu inoiz baino indartsuago gaudela, eta urtebetez desajoino mehatxuen zama bizkarrean eraman ondoren, eta Udalak denbora luze erakutsialako jarrera in-mobilista dela eta, beharrezkotzat jo dugu Gazte txarearen biziraupena ziurtatuko duen bidea guk geuk garatzea. Hitz horiekin hasi ziren hizketan Joan den astean Villabonako Onddo gazte asanbladako kideak, jendeari baten egoeraren berri emateko helburuarekin antola-



Onddo gazte asanbladako agerraldia egin zuten ostiralean okupatu duten Urdanpilleta etxean. I. GARCIA

tu zuten prentsaaren aurreko agerraldian.
Izan ere, «gazteek gazte txare bat behar dugula aldarrikatzeko», herrian hutsak zegoen etxe bat okupatu zuten lehenengo ostiralean Onddo gazte asanbladako 25 bat lagunek: Villabona erdi-erdian dagoen Urdanpilleta etxea esatu zuten guzuz, eta bertan pasatu zuten gaua. Eta horrekin batera, Udalak afera horretan izan duen jarrera detoratu nahi izan zuten.
«Udalak azken urteotan gaurtatu duen etxebizitzaren erakitzeko masiboa saiatu nahi dugu, herritarren benetako beharizanak albo batera utzita egin dituzkako», eta, aldi berean, herrian «ehunka etxebizitzak hutsak daudela ekarri nahi izan

zuten gogora, «370 etxe huts dituzten herri batean Udalak lokalak birruntzeko presaz zergatik duen esatez.
Flemingo ikastetxe zaharrean zuten lokalak uzteko agindua jaso zuten gazteek lehenengo hil-lean, erakina bota eta bertan etxebizitzak egin behar dituztelako. Aurretik, Udaleko ordezkariak eta Gazte txeko kideak hilabetetan aritu dira biltzen egoerari irtenbidea emateko, baina ez dira akordiora iritsi. «Gazte txekoa tokirik gabe utzea ez da gure asmoa» argudiatuta, udalari lokalak bat eskaini die Udalari Onddo kinei, baina gazte asanbladako kexu dira, lokal hori oso txikiak delako eta gazte txeko izateko baldintzak «betetzen ez dituzkela».

Urdanpilleta etxea horrengatik okupatu dute, baina «Horiei, orain urtebete betala, gazteok antolatutako jardura kulturalak eta egitasmo sozialak kokatzeko dituen gure kolektibo baten beharra aldarrikatzen dugun». Eta aldarrikapen hori «ekintza bihurtuz», sei urte inguru hutsak daramatzan Urdanpilleta etxea «okupatzeari eta biziberritzeari ekino» diotela adierazi dute.

Udalarekin hitz egiteko prest

Horiez bera da aurreantzerako duen helburua: etxea eta inguru hori azoluzian txukuntzea, eta, orohar, gazte txek bategi betetzen duen funtzioa betetzen joatea. Hala eta guztiz ere, Udalarekin hitz egiteko borondatea izan badutela diote gazte asanbladako kideak, baldin eta udal ordezkariak Gazte txekia herrian egiten duen lana aintzat hartzen badu: «Argi utzi dugu atsek zahalzik ditugula Udalarekin irtenbide bateratu bat lortzeko, baina gure duintasuna ez daio salgai, eta egoera hori irtenbidea eman nahi badio, herri honean Gazte txekia egiten duen lanari duen garrantzia eman behar dion».

Villabonako gazte asanbladak babes handia jaso du azken asteetan herritarren alde-rik. Orain bi aste herrian gazte txek baten beharra zegoela aldarrikatzeko antolatutako mobilizazio astearen harira manifestazio jendetsua izan zen —400 bat lagunek egin zuten bat protesta ekintzarekin—, esate baterako.

Onddo gazte asanbladakoek lana egiteko borondatea duela erakutsi dute urteon, eta hemendik aurrera bide horretan jarraituko dutela diote: «Utopiak amets, ametsak proiektu eta proiektuak errealtate bihurtzeko gai sentitzen garela-ko», herri bat, gazte txek bati,

TOLOSA ▶

Arroila jaitsera egiteko aukera Oargrekin

Oargi mendiko elkartek arroila jaitsera antolatu du astebururako Oestral arratsaldean akiturako dira Tolosatik Sallent de Gallego (Huescako Pirinioak, Espainia) Larrubalen, Gave de Herrana troka (4 rapel, 16 metrotakoak gehienez), eta Gorga Cat de Point (10 rapel, 10 metrotakoak gehienez) jaitziko dituzte. Eta Igandean, azkenik, Garganta du Bèst (12 rapel 50 metrotakoak gehienez) jaitziko dute. 70 euro balio du irteerak: prezioan barne daude nesgoroen eta materialaren alokairua, garraioa, kanpina, afaria eta gosariak, eta aseguruak. Joan nahi duenak 637 93 03 80 telefono zenbakira deitu behar du lehenbailehen.

TOLOSA ▶

KZguneko ikastaroen izen-ematea

Erdiguneko KZgunean ikastarok antolatu dituzte uzterako, eta izena emateko aukera badago oraindik, 20 orduko ikastarok dira, eta hilaren 11tik 22ra eskainiko dituzte, bi ordu-tartean: 08:00etatik 10:00etara lehena, eta 10:00etatik 12:00etara bigarrena. Informazio gehiago KZgunean (Pablo Gorosabel, 34 bis, 943 65 37 20).

TOLOSA ▶

Umeentzako dantza ikastaroa Udaberriekin

Udaberri Dantzari Taldeak umeentzako dantza ikastaroa antolatu du 2005-2006 ikasturterako, «haur eta gazte txoen artean dantzarako grina bultzatzeko». Euskal dantza ikastaroa 4 urteretik gorako haurrei dagokien dantza, eta adin araberako taldeak egingo dituzte. 10 euro balio du matrakua. Ertebeteak trularen 12ko astean hasiko dira, eta 9 hilabete iraungo dute. Izen-ematea, baina, bihar, eta eta ez darama (hilaren 6.7 eta 8) izango da, Igarondo igerilekuaren albon taldeak duen lokalera, 17:00etatik 20:00etara.

HITZA ▶

Gipuzkoako Foru Aldundiak 23.000 euroko diru laguntza eman dio HITZARI

Tolosaldeko eta Leizaldeko euskarazko egunkariaren jarduerarako, inbertsioetarako eta webgunerako laguntzak dira emandakoa

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtien ere diru laguntza eman dio Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZARI egunkariari. Hitzari egunkaria kaleratzen duen Tolosa Herria Hedabideak enpresari Guztira 23.493 euroko diru laguntza emango du —iaz baino 4.652 euro gutxiago—.

Hiru atalatan dago banatuta diru laguntza: egunkariaren jarduerarako, inbertsioak eta webgunea. Izan zuten ere, jarduerarako 16.100 euro jasoko ditu Tolosaldeko eta Leizaldeko euskarazko egunkariak inbertsioetarako, bestela 3.363 euro, eta www.tolosaldeko.hitzari.info webgunerako, azkenik,


3.600 euro. Iaz Gipuzkoako Foru Aldundiak 21.265 euro eman zituen Tolosa Herriak Hedabideak- i egunkariaren jarduerarako, 3.850 euro egunkariaren inbertsioetarako eta 3.000 euro webgunerako. Guztira 28.115 euroko diru laguntza eman zion Hitzari argitaratzen duen enpresari.

TOLOSA ▶ POLITIKA



'Apartheid'-a salatzeke, Tolosa Bizirik-ek deitutako mobilizazioa

L. Montes ▶ Tolosa Bizirik (TB) herri ekimenak deituta, zerbait herri-ritarrek bai egin nuten larri-baitan, azoka ekintzaren inguruan, apartheid egosera salatzeke. Plataforma udal ordezkariaren esanetan, «udalbatza herritarren borondatea albo batera utzita osatua dago, frankismo garaian bezala». Eguneko gobernuo zenbait zinegotzi «ez legitimoak» direla salatu zuten, eta berran, TB-ekok. Hatan irizitz, Gobernu Batzordearen «apartheid egosera gaitziditako borondatek ez» nabarmena da: «Tolosarron «Ziren ordezkariak udalbatzetik kanpora daude, eta ez zate parte hartzen uzten». I. GARCIA



TOLOSALDEA

OPORRETARANCA

Costa del Sol 300

Banidorm+Terra Nika 300

Mallorca 299

Paris 279

EROSKI

TOLOSA ▶

Beldarrainek lepuatzaile hausti du triatloian

Beasaingo triatloian ari zela erori zen; Egotz Zalakain 7. helmugaratu zen

LEIRE MONTES

Xabier Beldarrain tolosarrak lepuatzaile hausti zuen larri-baitan. Beasaingo triatloian, Liernan jaitzen erori eta izan zuten ezbeharra. Egotz Zalakain (Atletico San Sebastian) zazpigarren tritza zen helmugara, 1:54:37ko denborarekin. Almar Aguirreorabe (Tolosaldeko Triatlo Taldea) 56 sailkatu zen, 2:15:19ko denborarekin. Eta Iñaki Insausti (Tolosaldeko Triatlo Taldea) 72. postuan, 2:17:38ko denbora eginez. Hektor Llanosek (SVC Seguridad; 1:50:02) eta Maria Elena Garcia (Club Triatlondular; 2:04:26) hirugarren zuten proba.

VILLABONA ▶ MENDIA

Hiriburuen arteko azken etapa egingo dute Aizkardikoek igande honetan

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizaleen Elkartek Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoaren baitan azken etapa antolatuta du igande honetarako, Oriotik Donostiara. Horrela, bi urte eta erdiko

proiektua amaitutzat emango dute. Orioko plazatik abiatuko dira eta besteak beste, Galeseño y Biosalbi kaletatik eta Tximistarririk pasatuko dira.

Kosta ondoko ibilbidea burutuz, azkenean Igeldotik Ondarretara jaitsiko dira eta han-

dik Donostiako portura joango dira gero Santa Klara irlara itsasontziz joateko. Guztira 17 kilometro egingo dituzte eta 4,5 orduko ibilaldia izango da. Izena emateko gaur da azken eguna: 943 69 44 58 telefonora deitu edo Aizkardira azaldu.



Kostako eta itsasoko ikuspegi ederrak izango dituzte ibiltariak. HITZA

VILLABONA-AIZTONDO ▶ TXIRRINDULARITZA

Arantzazu Azpirotz berastegiarrak lortu du berriro txapela

Bigarren aldiz jarraian lortu du; esprinean bukatu zen txapelketan Leire Olaberria ikaztegiatarra izan zen bigarrena

IMANOL GARCIA

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa jokatu zuten igandean eskualdeko errepideetan, Irrintzi elkarteak antolatuta. Elite mailan, iazkoa errepikatuz, Arantzazu Azpirotz berastegiaria izan zen txapelduna esprinean Leire Olaberria ikaztegiatarra irabazi ondoren. Sub23 mailan Mireia Epelde izan zen lehena. Jubeniletan Jone Aretxabalak lortu zuen txapela, lasterketan biga-



Santesteban, Azpirotz, Aretxabala eta Epelde, podioan. HITZA

ren egin ondoren. Kadeteetan, berriz, Ane Santesteban izan zen txapelduna.

AEL taldeko Arantzazu Azpirotzek garaipenaren bila atera zen. «Aldapetan ikusten nuen indartsuena nintzela eta maldan gora alde egiten saiatzen nintzen», azaldu dio berastegiarrak HITZARI. «Baina ihesi egin arren atzetik taldetxo bat egiten zen eta gero harrapatu egiten ninduten. Azkenean esprinean saiatzea pentsatu nuen». Helmugan Leire Olaberriaren gorpila hartu zuen, bera baitzen aurkari indartsuena. «Azken momentura arte itxaron beharrea, lehena go jo nuen erasoa eta ondo ateraz», dio gustura Azpirotzek.

Larunbatean egindako kro-noeskaladan ere Arantzazu Azpirotzek lortu zuen garaipena elite mailan, 7 minutu eta 07 segundorekin. Jubeniletan, Ana Sanchis izan zen lehena, 7:15ekin. Ane Santesteban izan zen indartsuena kadeteetan, 7:45eko denborarekin.

AIZKORA ▶

Erasun eta Otaño aurrera II. Mailako Txapelketan

Azkolari zizurkildarrak eta ibartarrak Euskadiko finala jokatuko dute 31an

ERREDAKZIOA

Juan Manuel Erasun zizurkildarrak eta Unai Otaño ibartarrak Euskadiko II. Mailako Txapelketaren finalean ariko dira. Zizurkildarrak hirugarren amaitu zuen 17:13ko denborarekin. Unai Otaño laugarrena izan zen, Erasunetik 10 segundora. Biak hilaren 31n Donostiako finalean elkar ikusiko dira. Juan Jose Lopez eta Daniel Vicente nafarrak izan ziren lehen bi sailkatuak Usurbilen.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Abaltzisketa. Eraikuntza berriko etxe abikiak, terraza eta lursailarekin. Bista ederrak Txindokira eta bailarara.
Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai, ikusteko modukoa, bista ederrak.
Asteasu. Pabilioia. 1050 m² + 250 m² entreplanta, egokitua jangela, sukalde, bulego, komunak... oso egoera onean, sarrera onak

trailerrentzako, zamalanetarako kaiarekin.

Errazkin. Nafarroa. Berritzeko dagoen borda salgai. 140 m²ko bi solairu eta 1.200 m²ko lursaila.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran. 4 logela, sukalde, egongela eta bainugela.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreinatzeko!!!

Ikaztegieta. 6 etxe abikiaren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Ikaztegieta. Etxea abikiak salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria!!!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Alde Zaharra. 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela dituen etxe polita erabat berrituta.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Benta Aundi. Duplex polita salgai su baju eta guzti. Ikustekoa!!!

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen Plazan. 87 m²ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m² etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz

berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!!!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukalde, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behian: Garajea, komuna eta bokoa.

Tolosa. Laramendi. 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Trasteleku ederra ganbaran.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikaina.

Tolosa. Ibai-aldera eta hegoaldera. 4 logela, bi bainugela. Trasteleku eta garajea. Aukera paregabea!!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²ko bi etxebizitza bikain.

Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin!!! Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126 m²ko etxebizitza berritua garajearekin.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatuta dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Txarama inguruan. 100 m²ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela eta terraza. 167.080 euro.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondo. Pisua garajearekin. Pisua 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale Berria. 34 m²ko garaje ibxia salmantan.

EUSKARA ▶

Euskararekiko egiten den lana erakustea «beharrezko» jo dute

Ziurtagiriak erakusteko konpromisoa, aurtengo kanpainan Kontseiluak gehien nabarmendu nahi izan duena



Aresoko eta Leitzako 52 saltoki, eragile eta enpresek jaso zuten beren Ziurtagiria ostiralean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Euskararen alde lana egiten dela eta egiten den hori erakustea «oso garrantzitsua» dela adierazi zuen Kontseiluko Xabier Mendigurenek. Lehengo ostiralean Leitzako udaletxean Bai Euskarari Ziurtagiriaren banketa ekitaldian. «Gutako bakoitzak egiten duguna plazaratu egin behar dugu eta ondokoari jakinarazi. Ez gaudela bakarrik ikusi behar dugu. Askok gurea euskararen alde lan egiten dugunak», adierazi zuen.

Eta horixe izan da, Leitza eta Aresoko 52 eragilek aurtengo hartu duten konpromisoetako

bat: egokitu zaien Bai euskarari Ziurtagiriaren zigilua, eurek egiten duten lan guztietan erakustekoa, Jarraipen Batzordeko kide Itziar Viguerak bere aldetik baieztatu zuenez, «euskararen normalizazioan ematen ari garen urratsen adierazle baita Ziurtagiria».

Herrian euskararen erabilerari normalizatzeko Udalak eskaldunak izatea «ezinbestekoa da baina ez nahikoa» baieztatu zuten Leitzako eta Aresoko alkateek, bestalde, beren adierazpenetan: «Hori bezain garrantzitsua da herriko gainerako eragileek urratsak ematea» adierazi zuten, eta eragileei

Udalen laguntza izanen zutela esan zien.

Horrela, gizarteratze lan horrez gain, bakoitzak hartu nahi eta ahal izan dituen euskararekiko konpromisoen arabera, zegokien Ziurtagiria jaso zuten, han bertan bildu ziren eragile desberdinen ordezkariak, aipatzekoa denez, jendez mukuru ageri zen batzar aretoan, jaso ere. Lehen aipatu bezala, bi herrietako enpresa, saltoki eta mota askotako erakundeek hartu zuten parte. Horietatik 46ek berretsi zuten beren euskararekiko konpromisoa eta beste 6ek ekin diote bideari, 2 Areson eta 4 Leitzaan.

KARMEN REZOLA ▶ ARESOKO ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

«Gure funtzionamendua euskaraz izatea lortu da»

Aresoko eskolako Guraso Elkarteak Bai Euskarari Ziurtagiriaren jabe da eta bide horri jarraitzekotan dira.

Iaz zer konpromiso hartu zenuzuten?

Talde txikia gara eta ez genietuen asko hartu: estatutuak euskaratzea, gure idatziak eta euskaraz egitea, orohar gure funtzionamendua euskaraz izatea.

Zailltasunik edo izan duzue, horiek betetzerakoan?

Ez. Estatutuak euskaratzea, Udal Euskara Zerbitzuak egin digu eta zailena hori zen. Gainerakoa guk moldatu dugu: idatziak, kontuak eramatea gerok aldatu eta egokitu ditugu. Gure harremanak gurasoekin izaten direnez, ederki moladatu gara.



J. ASTIBIA

Urrats berriak ematekotan zarete.

Bai, batez ere hemendik aurrera gure idatzietan Ziurtagiriaren zigilua erabiltzea dugu eginbeharrekoa.

Zer ziurtagiri lortu duzue?

Lehen *Bidean* genuen, orain *Guk zerbitzua eta lana euskaraz* lortu dugu. ◀

JAIONE ALDAIA ▶ LEITZA MANDRILADORAKO LANGILEA

«Euskararen alde egiten den lanaren isla da»

Leitza mandriladora orain sartu da Bai Euskarari kanpainan, *Bidean* Ziurtagiria lortuz.

Nola ekin diozue bideari?

Lantokiko gestioan, badira gauza batzuk gure kabuz euskaraz egiten ditugunak eta Ziurtagiriarekin hastea, horiei forma emateko bidea iruditu zaigu. Gainera, honekin gure lantokian ere euskararekiko lan bat egiten dela islatzea lortzen da, enpresa modura, kezka hori badugula. Gizartearen parte gara eta ez gaude isolatuta. Ziurtagiriak hori guztia erakusteko balio digu.

Zer konpromiso hartu du zuen lantokiak?

Errotuluak eta plaka aldatzea;



J. ASTIBIA

makinaren errotulazioa ere bai; langile berriak hartzerakoan, euskara jakitea baloratzea; nominak eta euskaraz egiten ditugun arren, kontratuak, finikitoak eta horrelakoak, euskaraz ere egitea... ◀

hitza

lagunen txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KARMELE** ileapaindegiak zozketatutako **3 orraztu**aldi eta beren tratamendu berezien irabazlea

NEKANE EGUINO OLABE (TOLOSA)

KARMELE
ILEAPAINDEGIA

San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

Tolasaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero





AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Ingelesko udaleku irekiak Hirukide Jesuitinak ikastetxeko instalazioetan.
Tolosa. Udaberri taldeak dantza ikastaroak antolatu ditu 2005-06 ikasturterako. Izen-ematea, uztailaren bihartzik 8ra, 17:00etatik 20:00etara, Udaberriren lokalean (Igaralde kalea).
Tolosa. Uztailaren 8an eta 9an Herriarren Partaidetzako Jardunaldiak izango dira udaletxean, iritzia emateko hainbat alorretan. Parte hartzeko 943 69 74 50 telefonora edo partehartu@tolosakoudala.net postara zuzendu.
Tolosa. Kainoien jaitsiera egiteko irteera antolatu du astebururako Oargik. Ostiral arratsaldean abiatu, larunbatean Gave de Herrana eta Cat de Pount arroila; eta igandean Bitet arroila. 637 83 03 80.
Villabona. Aizkardikoek antolatuta Orio-Donostia irteera egingo da, igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora. Gaur da azken eguna.

DEIALDIAK

Alegia. Fernando Rojo eta Izarne Garmendia. Afrikako argazkiak. Jubilatuen taberna.
Hernalde. Pepi Arrutiren olioak Herriko Ostatuan.
Tolosa. Dick Rekaldere pinturak. Aranburu Jauregia.
Tolosa. Aitor Ventureiraren argazkiak euskal inauterietz. Ganbara arropa denda.
Tolosa. Xabier Galizaren pinturak. Poxpolin enmarkazio denda.
Tolosa. Malen Urtzelai. Koadroak. Sorron denda.
Tolosa. Alejandro Gonzalez. Pinturak. Lanbroa taberna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin J. Iraola 10. 943 67 24 38.


IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
19:00. Errepikapena.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskal Tonbola tabernetan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Hainbat herritan salgai daude Kontseiluak antolatutako ekimenaren txartelak euro batean; sari potoloak daude



Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia eta Iker Gomez de Segura finantzaburua Euskal Tonbolako kaxekin. HITZA

ERREDAKZIOA

Kontseiluak antolatutako Euskal Tonbola herriz herri doa eta egun haue-tan Tolosaldeko eta Leitzaldeko zenbait herritako tabernetan salgai dago, Goierri eta Urola Garaian bezala. «Sari potoloak eskuratzeko aukera emateaz gain, euskararen konpromisoa zabaltzen du Euskal Tonbolak», azaldu du Kontseiluko idazkari nagusiak, Xabier Mendigurenek.

«Sari nagusiak Mediterrane-

oan zeharreko bidaia, DVDak, argazki kamera digitalak, MP3ak eta sakelako telefonoak dira, besteak beste», zehaztu du Xabier Mendigurenek. Beraz, sari asko izango dira, haien artean, afariak, asteburuak landetxeetan, talasoterapiarako sarrerak eta irratiak. «Bostetik batek saria jasoko du», adierazi dute.

Euskal Tonbolako txartelak herrietako tabernetan eskura daitezke euro baten truke. Erosleak txartela hazkatu egin beharko du saria zein den jaki-

teko. Gainera, sari gehienak tabernan bertan dira eta bezeroak memento berean jatzetako aukera dauka. «Txartel bakoitzean sariaren izenarekin batera, norbanakoez euskara sustatzeko konpromiso bat azalduko da», jakinarazi du idazkari nagusiak.

Euskal Tonbola 170 taberna ingurutan dago. Gure eskualdeko herri haue-tako tabernetan eros daiteke: Alegia, Aitzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Ibarra, Ikaz-

tegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Tolosa, Orendain, Villabona eta Zizurkil.

Euskal Tonbola uztailaren bukaeraren artean izango da Tolosaldean, Leitzaldean, Goierri eta Urola Garaian.

Hurrengo zonaldea Donostia, Oarsoaldea eta Bidasoa izango dira. «Datozen hilabete-tan Euskal Herri osotik ibiliko da Euskal Tonbola, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan, Iparraldean...», esan du Iker Gomez de Segura Kontseiluko finantzaburuak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iraitz Olaetxea (Lizartza).
14 urte. Igandeako partez, zorionak
Aldabetik gure biapeldunari.



URTE ASKOAN
Udane Sarasola. Gaur 16
urte. Zorionak etxekoetan eta
Mielen partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea**
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!